

MADDI TELLERIA ALDAZ

B Maila | Olerkia | aipamen saria

Maddi Telleria Aldaz naiz, 14 urte ditut, 2011ko ekainaren 16an jaio nintzen. La Salle ikastetxean ikasten dut. Betidanik galdera asko egin ditut gauzak ikastea asko gustatzen bait zait. Gehien atsegin ditudan gauzen artean, futbola, Goierri gorri taldean jokatzen dut, moda eta musika daude. Familiarekin eta lagunekin pasatzen dudana denbora oso garrantzitsua da niretzako, beraiei esker zoriontsua naiz. Oso sentibera naiz, eta dena %100.ean bizi dut. Gogor lan egiten dut nire helburuak lortzeko.

BAKARDADEAREN OIHUA

BAKARDADEAREN OIHUA

Hitz egiten dut,
baina inork ez nau entzuten,
Ahotsa hormen kontra
apurtzen da,
deuseztatzen da,
txiki txiki bihurtzen da.

Bihotza kristalezko horma bat da,
ikusten naute,
suma nazakete...

baina urrun nago euren unibertsoetik.

Ezin eskuratu ezin ukitu,
Esaten dudana ez da iristen.

Begiratzea eta ikustea ez baita bera,
Barre egiten dut maiz,
malkoak ezkutatzeke.

Argia kanpotik, iluna barrutik.

Isiltasuna oihu bihurtzen da gauetan,
jasanezinezko mina bihotzetan.

Ez naute entzuten,
nire ahotsa dardarka dagoenean.
Ez naute entzuten,
barrua lehertzen zaidanean.
Ez naute entzuten,
isiltasuna astun bihurtzen denean.

Onartua izan nahi dut,
MAITATUA.
Ulertua izan nahi dut,
ENTZUNA.
Laguna izan nahi dut,
BALIOAN JARRIA.

Entzuna izan bedi
nire isiltasuna inoiz,
Inoiz ez nadin
bakarrik sentitu berriz.

Ikusi eta ...
eskua luzatuko dit.

Ulertu...

eta amildegitik aterako nau.